



Parte-hartze markoa

Auzotik Galdakao

Galdakaoko Udala

Dokumentu hau Galdakaoko Udaleko arduradun politiko eta teknikoekin egindako hausnarketaren emaitza da.

Gobernu taldea: 2023/10/16, 2023/11/6, 2024/01/8 eta 2024/05/02ko tailerren ondorengo hausnarketak.

Udaleko Arloetako teknikariek egindako lana: 2024/03/20

1. Parte-hartze markoaren atalak

1. Izena

Prozesuaren izena:

Auzotik Galdakao.

Galdakaoko auzoen garapenerako udal estrategia.

2. Prozesuaren helburua eta hedapena

Helburua.

Galdakaoko auzoen garapenerako udal estrategia.

Auzotik Galdakao gure herriko auzoen garapen integral eta orekatua helburu duten tokiko politikak diseinatu eta abian jartzera zuzendutako herritarren parte-hartze, gogoeta eta lankidetzat proiektua da.

Hedapena.

Proiektu hau urratsez-urrats gauzatuko da. Hasteko, herriko hainbat auzo biltzen dituzten eremu bi aukeratu dira pilotajeak egiteko. Proiektua horietan hasi da:

- 1 eremua. Agirre, Aperribai, Azpuru, Olabarrieta, Txistulanda, Aperribai-Zaharra eta Jugo auzoek osatzen dute.
- 2 eremua .Tximiolarragoikoa, Urtebieta, Zugatzaurre eta Urreta auzoek osatzen dute.

Pilotaje hauei esker proiektuan egin beharreko doikuntzak egin ahal izango dira gainerako eremuetara hedatu aurretik.

2024an gainerako 4 eremuetara zabalduko da proiektua, hasierako eremuetan egindako lan-prozesu berdinari jarriki:

- 3 eremua. Altamira, Askarri, Gumuzio, Kortederra, Padrola, Artola, Basozabal, Bekea, Bekelarre, Itzaga, Basabe, Belategi, Egia, Elexalde, Errekalde, La Mina, Uraburu, Usargoiti eta Olabarri auzoek osatutakoa.
- 4 eremua. Bengoetxe, Troka, Ergoien, Zugutzu eta Upomendi auzoek osatutakoa.
- 5 eremua. Kurtzea, Tximiolarrabekoa eta Zabalgane auzoek osatutakoa.
- 6 eremua. Berezikoetxe eta Zabalea auzoek osatutakoa.



2025 urtearen amaieran *Auzotik Galdakao* proiektua Galdakao osoan zabaldua izango da.

3. Helburu nagusia

Definitutako 6 eremuetako auzoen beharren inguruko diagnostikoa diseinatu eta egitea datozen 4 urteetan zehar horiei erantzungo dien estrategia bat lantzeko helburuarkin.

4. Prozesuaren faseak eta emaitzak

Prozesuaren fase eta emaitzak:

- **0 fasea:** Prozesuaren definizio eta diseinua:
 - **Emaitza:** Parte hartutako diseinua.
- **1 fasea:** Definitutako 6 eremuetako auzoen beharren inguruko diagnostikoa eta azterketa.
 - **Emaitza:** Eremuaren diagnostikoa.
- **2 fasea:** Estrategiaren formulazioa.
 - **Emaitza:** Eremurako estrategia (4 urte).
- **3 fasea:** Eremurako estrategia abiarazi, garatu eta horren jarraipena egin.
 - **Emaitza:** Urteko plana (urtero).

5. Auzotik Galdakao proiekturako eremukako banaketa

Hauxe izango da "Auzotik Galdakao" proiekturako banaketa:

- Eremua. Aperribai, Olabarrieta, Txistulanda eta Jugo.
- Eremua. Urreta, Urtebieta, Zuhatzaurre eta Tximelarre Goikoa.
- Eremua. Altamira, Askarri, Gumuzio, Kortederra, Padrola, Artola, Basozabal, Bekea, Bekelarre, Itzaga, Basabe, Belategi, Egia, Elexalde, Errekalde, La Mina, Uraburu, Usargoiti eta Olabarri.
- Eremua. Bengoetxe, Troka, Ergoien, Zugutzu eta Upomendi.
- Eremua. Kurtzea, Tximelarre Bekoa eta Zabalgane.
- Eremua. Berezikoetxe eta Zabalea.

Eremu bakoitzaren berezko izena eremu horretako Lurralde Kontseilkuak erabakiko du.

6. Auzotik Galdakao proiektuaren kudeaketa eta koodinazioa

1. Auzotik Galdakao-ren kudeaketa.

Kudeaketaren ardura duten organoak:

- Koodinazio teknikoa: Parte-hartze eta Gardentasun Arloa.
- Koodinazio politikoa: Parte-hartze eta Gardentasun Arloko zinegotzia, Lurralde Kontseiluetako buru diren beste zinegotziekin batera.



2. Udal arloen arteko koordinazioa.

Auzotik Galdakao proiektuaren helburuetako bat politika publikoetan eragitea denez, beharrezkoa da proiektuaren barne-koordinaziorako sistema bat adostea. Horrela, lehen urrats gisa, Auzotik Galdakao barne ezagutzera eman da koordinazio mahaien bidez (Herritarrak, Lurralde eta Antolaketa), mahai tekniko-politikoaren bidez eta barne hedapenerako jardueren bidez.

Bestalde, udaleko arloekiko koordinazioa maila teknikoan landu da, eta honako akordio hauek lortu dira:

- Udaleko teknikariek presentzia izango dute herritarrek parte hartzeko gunetan, eremu bakoitzerako estrategia prestatzeko fasean. Presentzia hori beharrezkotzat jotzen da proposamenen lehen kontraste gisa. Lehen fase horietan, teknikarien eta herritarren arteko zuzeneko kontrasteari esker, proposamenak ikuspegi tekniko batekin eraiki ahal izango dira, eta horrek proposamenak zehazten eta hobetzen lagun dezake.
- Udaleko teknikariak arduratuko dira parte-hartze prozesutik datozen proposamenen balorazio teknikoa egiteaz. Balorazio hori proiektuak dituen biartekoen bidez jakinaraziko da.
- Eremu bakoitzeko estrategia adostu ondoren, eremuek hiru hilean behin jakinaraziko diote Parte-hartze eta Gardentasun Arloari zein den plana gauzatzeko onartutako proiektuen egoera.
- Era berean, erabaki da proiektuak zeharka jaso beharko dituela genero-ikuspegiak eta hizkuntza-normalizazioa, bai diseinu-lanetan, bai abian jartzean.

7. Araudi markoa

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 383/1987 Dekretua, Abenduaren 15ekoa; Euskadiko Tokiko Administrazioaren Errolda sortuz.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzea.
- 7/1985 LEGEA, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, toki-erakundeen antolamenduari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena.



- Galdakako parte-hartze ordenantza.

8. Nork parte hartu ahal eta behar duen

Parte hartu behar eta ahal duten eragileak:

1. Lurralde horretako herritarrak.
2. Lurralde horretako instituzio-, gizarte- edo ekonomia-eragileak.

Parte-hartzea:

- Bizitza-zikloari dagokionez:
 - Parte-hartze zuzena:
 - Gazteak. 18-30 urte.
 - Helduak. 30-65 urte.
 - Pertsona nagusiak. 65 urtetik gora.
 - Bitartekarien bidezko parte-hartze:
 - Haurrak: lehen hezkuntza eta DBH. Haurren Kontseiluaren bidez.
 - Nerabeak (12-17 urte) Nerabeei egokitutako parte-hartze prozesua.
- Lurraldeari dagokionez:
 - Parte-hartzea honakoei irekiko zaie:
 - Eremuan erroldatutakoak.
 - Erroldatuta egon gabe, eremu horretan bizi, lan egin edo haien jarduera bertan egiten dutenak.
 - Erabakiak hartzeko orduan, boto edo babesen bidez, (prozesuan zehar egingo balitz) honakoek parte hartu ahal dute:
 - Eremuan erroldatutakoek, boto eskuordetua egiteko aukera egonda.

9. Parte-hartze egitura

Eremu bakoitzean prozesuak honako egiturak beharko ditu:

- Eremuko estrategia bultzatzeko:
 - Talde Eragilea.
 - Talde teknikoa.
- Parte-hartzerako eta eremuko estrategia koordinatzeko:
 - Lurralde Kontseilua, parte-hartze ordenantzak jasotako egitura duena.
- Eremuko strategiaren jarraipena egiteko:
 - Lurralde Kontseiluak Jarraipen Batzorde lana egingo du.
 - Kontseiluko buru den zinegotzia.
 - Parte-hartze eta Gardentasun Arloa edo PGTB.

Eremuko Lurralde Kontseiluak eremu horretako gaiak edo Galdakao osokoak jorratuko ditu.



10. Prozesuaren muga eta baldintza teknikoak, ekonomikoak edo politikoak.

Prozesuak jasotzen dituen proposamenek honako baldintza hauek beteko dituzte:

Baldintza teknikoak:

- Udal esparruko eta udal eskumeneko ekintzak (prozesuan zehar, erraz zehaztuko da zeintzuk diren udal-eskumenak).
- Udalaz gaindiko esparruko eta eskumeneko ekintzak, udala ordezkatuta dagoen beste egitura batzuetatik.
- Parte-hartze prozesuaren xedearen eta helburuen barruko ekintzak.
- Eremuko estrategien misioan, ikuspegian, printzipioetan eta balioetan kokatutako ekintzak (prozesuaren 2. fasean definituak).
- Teknikoki bideragarriak diren ekintzak.
- Indarrean dauden udaleko planen aurka ez doazen ekintzak.

Baldintza material eta ekonomikoak:

Eremuko estrategiak bi proposamen mota jasoko ditu eremu bakoitzean:

1. Eremu bakoitzeko urteko aurrekontuarekin egin beharrekoak.

Urteko aurrekontu hau:

- Milioi bat eurokoa izango da, 6 eremuetan banatuta.
- Desberdina izango da eremuaren arabera, eremuen areko oreka lortzeko. Zenbateko horren zati bat eremu bakoitzeko biztanle kopuruaren aabera kalkulatu da (A), eta beste zatia eremuak orekatzeko neurritzat hartuko da (B).

	Biztanleak		Aurrekontua guztira			
	z.a.	%	A	B	z.a.	%
Aperribai-Olabarrieta-Txistulanda	2.545	10	51.098 €	133.902 €	185.000 €	18,5
Urtebieta-Zuatzurre-Tximelarre Goikoa-Urreta	6.117	25	122.817 €	47.183 €	170.000 €	17,0
Elexalde-Altamira-Bekea-Olabarri- Gumuzio	918	4	18.432 €	161.568 €	180.000 €	18,0
Bengoetxe-La Troka-Ergoien-Zugutzu- Upomendi	1.520	6	30.518 €	154.482 €	185.000 €	18,5
Kurtzea-Zabalgane-Tximelarre Bekoa	6.750	27	135.526 €	4.474 €	140.000 €	14,0
BITSI-Zabalea	7.053	28	141.609 €	-1.609 €	140.000 €	14,0
GUZTIRA	24.903	100	500.000 €	500.000 €	1.000.000 €	100,0

- Udalak konpromisoa hartuko du baldintza teknikoak bete eta eremu bakoitzari esleitutako zennbatekoaren barruan dauden proposamenak garatzeko.
2. Udalak “konprometitu gabe” duen aurrekontuarekin egin beharrekoak, baldin eta Udalak egoki irizten badio.

Proposamenek ezin dute konprometitu gastuen I. Kapituluak (Langiileria gastuak).

**Baldintza politikoak (Gobernantza):**

Eremuetako estrategia eta ekintzek honako baldintzak bete behar dituzte:

- Eremuko strategiak lerrokatuta egon behar dira Gobernu Planarekin.
- Gobernu taldeak eremuetarako ezarritako estrategien misio, bisio, oinarri eta baloreekin lerrokatuta egon behar dira (prozesuaren 2. Fasean zehaztuko dira).
- Gobernu Taldeak adostu eta Osoko Bilkuran onartuko ditu:
 - Eremuko strategiak.
 - Eremurako urteko plana.
- Koordinazioa eta jarraipena parte-hartze eta gobernanzarako egituratik.

11. Parte-hartze prozesuaren emaitzekin hartuko den konpromiso politikoa.

Udalak strategiaren emaitzekin hartuko duen konpromisoa desberdina izango da eremu bakoitzeko urteko estrategian jasotako proposaenen arabera:

1. Loteslea izango da eremu bakoitzeko urteko aurrekontuarekin egin beharreko ekintzei dagokienean (aurrentu parte-hartzaileen eredia)
2. Kontsultiboa izango da Udalak “konprometitu gabe” duen aurrekontuarekin egin beharreko ekintzei dagokienean.

Proposamenak edo ekintzak:

Prozesuaren mugen barruan dauden eta eremu bakoitzeko diagnostikoan identifikatu diren beharrei erantzuten dieten herritarren, gizarte eragileen, eragile ekonomikoen edo eragile instituzionalen proposamenak jasoko dira.

Erabakiak hartzea:

- Loteslea: Eremuko strategiarekin lotutako proposamenen hautaketa (aurrekontu parte-hartzaileen eredia) Lurraldeko Kontseiluan egingo da.
- Kontsultiboa: eremuko strategiarekin lotutako aurrekontuarekin egingo “ez” diren proposamen inguruko erabakiak Gobernu Taldeak hartuko ditu.

Ejekuzioa:

Udala, herritarrak, gizarte, erakunde eta ekonomia-eragileak.

Gobernu taldeak prozesuaren emaitzekin hartuko duen konpromisoa honen bidez adieraziko da:

- Parte-hartze prozesuaren berri ematean.
- Prozesuko parte-hartze esparruetan.
- Informazio-batzordean.
- Osoko bilkuran.
- Prozesua onesteko dekretuan.

12. Oposizioaren parte-hartze politikoa.

Oposizioko zinegotzien parte-hartze politikoa honela egingo da:

- Parte-hartze prozesuaren Lurralde Kontseilua / Jarraipen Batzordea.
- Udaleko informazio-batzordeak.



- Udalbatza.

13. Eremu guztietako estrategien egitura

Auzotik Galdakako estrategia, eremu guztietan, Udalaren strategiarekin edo gobernu-planarekin lerrotatuko dira.

Horretarako, Auzotik Galdakaoren helburua, egitura eta printzipioak "**Galdakao Egunero bizitzeko. Bizitzeko leku bat**" planeko helburu eta ardatz estrategikoak erabiliko dira.

Helburua:

Herritarrei baliabideak, zerbitzuak eta sareak ematea, herrian bizitza oparoa izateko.

Ardatz estrategikoak.

- Egunero oparo bizitzeko lekua.
- Egunero osasunez bizitzeko lekua.
- Egunero eroso bizitzeko lekua.

Galdakao Egunero bizitzeko-ko ardatzek zeharkako ikuspegia duten arren, lurralde-kontseiluen lana eta Eremuko Estrategien garapena errazteko, gomendatzen da Auzotik Galdakako ardatz bakoitzak udalaren arlokako banaketarekin zerikusia duten eremu espezifiko batzuk esleituta izatea. Adibide gisa:

- Egunero oparo bizitzeko lekua.
Kultura, Hezkuntza, Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Adinekoak, Migrazioa, Herritarren parte-hartzea eta Gardentasuna, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Bizikidetzak, etab.
- Egunero osasunez bizitzeko lekua.
Garapen jasangarria, Osasuna, Kirolak...
- Egunero eroso bizitzeko lekua.
Hirigintza eta Lanak, Mugikortasuna eta Garraioak, Etxebizitza eta Sustapen Publikoak, Sustapen Ekonomikoa eta Enplegua, etab.

Horrek erraztu egingo du ildo estrategiko bateratuak garatzea eremu guztietan, nahiz eta jarduerak desberdinak izan.

14. Lurralde Kontseiluek eremu bakoitzari esleitutako aurrekontuaren gainean erabakiak hartzeko prozedura

1.fasea. Diagnostikoa:

Datuak (alde objektiboa) eta inguruko eta auzoetako premien pertzepzioak (alde subjektiboa) biltzea eta aztertzea.



Lehen urratsa: Beharrak eta erronkak.

Eremu bakoitzean, premia eta eskari nabarmenenak aztertuko dira, eta holan antolatuko dira: indarguneak, ahuleziak, erronkak eta lehen proposamenak.

2. fasea. Estrategia formulatzea.

Bigarren urratsa: estrategiaren markoa zehaztea.

- Misioa, ikuspegia eta helburu orokorrak (Galdakao Egunero bizitzeko).
- Printzipioak eta balioak (Galdakao Egunero bizitzeko).

Hirugarren urratsa: strategiaren egituraren diseinua.

- Ardatz estrategikoak ("Galdakao Egunero bizitzeko").
 - Egunero oparo bizitzeko lekua.
 - Egunero osasunez bizitzeko lekua.
 - Egunero eroso bizitzeko lekua.
- Ildo estrategikoak ("Galdakao Egunero bizitzeko").
- Jarduketa estrategikoak (diagnostikoaren beharrek eta erronkek zehazten dituzte).

3.fasea. Urteko Plana egitea.

Laugarren urratsa: urte horretarako proposamenak biltzea.

Proposamenek 3 baldintza bete behar dituzte:

1. Estrategiaren esparruan sartzea (misioa, ikuspegia, helburu orokorrak, printzipioak eta balioak).
2. Antzemandako beharrei (diagnostikoa) eta erronkei (ildoak eta ekintza estrategikoak) erantzutea.
3. Ezarritako mugen barruan egotea:
 - Juridikoki legezkoak (arau-esparruaren barruan).
 - Teknikoki egingarriak direnak (udalaren esparru eta eskumeneoak, teknikoki bideragarriak) eta indarrean dauden udal-planekin bateragarriak direnak.
 - Ekonomikoki egokiak (ezarritako aurrekontu-mugaren barruan).
 - Udalak dituen giza baliabide eta baliabide materiekin egingarriak (udalaren eta/edo komunitatearen baliabideekin).
 - Ezarritako denboran egingarriak (ezarritako denbora-mugaren barruan).

Bosgarren urratsa: Proposamenak baloratzea eta lehenestea.

Proposamenak Gobernu Taldeak ezarritako eta Kontseiluek landutako irizpide batzuen arabera baloratuko dira:

- Jasangarritasuna.
- Jarraikortasuna eta inpaktua.
- Kostu ekonomikoa eta esfortzua.
- Berdintasunezkoa eta integratzailea.
- Solidarioa eta sozialki bidezkoa.
- Eta abar.

Seigarren urratsa: Erabakiak hartzea.



Gobernu-taldeak konpromisoa hartzen du erabakitako, lehenetsitako eta lurralde-partaidetzako organo batean hautatutako proposamenak aurrekontuetan sartzeko, ezarritako aurrekontu-muga bete arte.

Prozesurako ezarritako aurrekontutik kanpo, Gobernu Taldeak erabaki du zer sartu aurrekontuetan.

15. **Prozesuaren emaitzak:**

Prozesuaren fase bakoitzaren emaitzak honako hauek izango dira:

0. fasea: Prozesuaren definizio eta diseinua:

- Eremu bakoitzean talde eragilea sortzea.
- Eremu bakoitzaren hasierako analisia (eragiileak, komunikabideak, baliabideak...)
- Prozesuaren komunikazio plana diseinatzea.

1. fasea: Eremuko auzoen diagnostikoa:

- Eremu bakoitzean Lurralde Kontseilua sortzea.
- Eremu bakoitzeko auzoen diagnostiko integrala:
 - o Ingurumena, paisaia eta ondarea
 - o Mugikortasuna.
 - o Hirigintza eta azpiegiturak.
 - o Etxebizitza.
 - o Biztanleria eta gizarte-kohesioa.
 - o Erakundeak, ekipamenduak eta zerbitzuak.
 - o Ekonomia eta kontsumoa.
 - o Lurralde Kontseilua.

2. fasea: eremurako estrategia:

- Misioa, bisioa.
- Printzipioak eta balioak.
- Helburu orokorrak eta arlo estrategikoak.
- Ildo estrategikoak eta ekintza estrategikoak.
- Plangintza eta ebaluazio zikloa.
- Partaidetza eta gobernantza egitura.

3. fasea: Estrategia abiarazi, garatu eta jarraitu.

- Eremurako urteko plana (urtero).
- Urteko plangintza eta programazio publikoa.
- Ekintza operatiboak (urtekoak), aurrekontua eta baliabideak.
- Urteko ebaluazioa eta memoria publikoa.

16. **Zabalkundea, gardentasuna eta prozesaren trazabilitatea.**

Prozesuak komunikazio-plan bat izango du, eremu bakoitzera egokitua, eta plan horren bidez honako hauei buruzko informazioa emango da:

- Parte-hartze prozesua.
- Fase bakoitzaren hasiera, parte hartzeko kanal eta espazioekin batera.
- Fase bakoitzaren emaitzak.



Prozesuaren gardentasunerako online gune bat izango da, "Erabaki Galdakao" webgunearen bidez, eta honako hauek erakutsiko dira bertan:

- Prozesuari buruzko informazio guztia: parte-hartze markoa, prozesuaren faseak, parte hartzeko bideak eta espazioak, dokumentuak, etab.
- Eremurako estrategiaren ekintzak.
- Ekintzen bilakaera eta lorpen maila.